



2023 EKITALDIKO URTEKO KONTU LABURTUAK

- ✓ 2023 ekitaldi-itxierako balantze laburtua
- ✓ 2023/12/31n amaitutako ekitaldiko galdu-irabazien kontu laburtua
- ✓ 2023 ekitaldiko memoria laburtua

IRATZAR FUNDAZIOA
2023 EKITADI-ITXIERAKO BALANTZE LABURTUA
(Euroak)

AKTIBOA	Memoriaren oharrak	2023	2022 (*)
A) AKTIBO EZ ARRUNTA		435.244,23	377.663,91
II. Ibilgetu materiala	4.1, 5	424.444,23	377.663,91
V. Finantza-inbertsioak epe luzera	4.4, 6	10.800,00	0,00
B) AKTIBO ARRUNTA		185.207,16	162.256,39
II. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	4.3, 7, 9	113.612,51	94.285,29
V. Epe laburreko aldizkapenak		24.044,98	17.997,70
VI. Efectiboa eta beste aktibo likido baliokideak	4.3	47.549,67	49.973,40
AKTIBOAK GUZTIRA (A+B)		620.451,39	539.920,30

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	Memoriaren oharrak	2023	2022 (*)
A) ONDARE GARBIA		570.011,78	472.024,00
A-1) Berezko funtsak	8	146.859,89	95.832,42
I. Fundazioaren zuzkidura		30.000,00	30.000,00
II. Erreserbak		65.832,42	65.572,15
VII. Ekitaldiko soberakina	3	51.027,47	260,27
A-3) Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	4.10, 11	423.151,89	376.191,58
C) PASIBO ARRUNTAK		50.439,61	67.896,30
III. Zorrak epe laburrera	4.3, 6	267,99	301,73
1. Kreditu erakundeekiko zorrak		267,99	301,73
VI. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak	4.3, 6, 9	50.171,62	67.594,57
2. Beste hartzekodun batzuk		50.171,62	67.594,57
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA (A+C)		620.451,39	539.920,30

(*) Aldatua (2.7 oharra)

Florencio Aioz Monreal
Patronatuko lehendakaria

IRATZAR FUNDAZIOA
2023/12/31n AMAITUTAKO EKITALDIKO EMAITZEN KONTU LABURTUA
(Euroak)

	Memoriaren oharrak	(Zorduna)	(Zorduna)
		Hartzekoduna	Hartzekoduna
		2023	2022 (*)
1. Berezko jardueragatik lortutako diru-sarrerak		824.329,31	604.285,29
d) Ekitaldiko soberakinari egotzitako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	4.10, 11	824.329,31	604.285,29
7. Jarduerako bestelako diru-sarrerak	4.6	6.051,72	1.615,25
8. Pertsonal-gastuak	4.8, 4.9, 10.1	(504.439,95)	(372.993,43)
9. Jarduerako bestelako gastuak	4.6, 10.2	(274.733,62)	(232.203,49)
10. Ibilgeturaren amortizazioa	4.1, 5	(4.545,10)	(2.913,16)
11. Ekitaldiko soberakinera eramandako kapitaleko diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	4.10, 11	4.365,11	2.441,26
14. Bestelako emaitzak		0,00	28,55
A.1) JARDUERAREN SOBERAKINA (1+7+8+9+10+11+14)		51.027,47	260,27
A.2) ZERGA AURREKO SOBERAKINA (A.1)		51.027,47	260,27
A.4) ERAGIKETA JARRAITUETATIK DATORREN EKITALDIKO SOBERAKINA (A.2)		51.027,47	260,27
A.5) ONDARE GARBIAREN ALDAKETA, EKITALDIKO SOBERAKINARI ATXIKITUTA (A.4)		51.027,47	260,27
C) ZUZENEAN ONDARE GARBIRA EGOTZITAKO SARRERAK ETA GASTUAK			
3. Jasotako diru-laguntzak		51.325,42	0,00
C.1) Zuzenean ondare garbira egotzitako sarreren eta gastuengatik aldaketak Ondare Garbian (2+3)		51.325,42	0,00
D) EKITALDIKO SOBERAKINARI BIRSAILKAPENAK			
3. Jasotako diru-laguntzak	4.10, 11	(4.365,11)	(2.441,26)
D.1) Ekitaldiko soberakinari egindako birsailkapenengatik aldaketak Ondare Garbian (3)		(4.365,11)	(2.441,26)
E) ZUZENEAN ONDARE GARBIRA EGOTZITAKO SARREREN ETA GASTUENGATIKO ALDAKETAK ONDARE GARBIAN (C.1+D.1)		46.960,31	(2.441,26)
G) AKATSENGATIKO DOIKUNTZAK	2.7	(3.675,52)	0,00
J) EMAITZA GUZTIRA, ONDARE GARBIAREN ALDAKETA EKITALDIAN (A.5+E+G)		94.312,26	(2.180,99)

(*) Aldatua (2.7 oharra)

Florencio Aioz Monreal
Patronatuko lehendakaria

2023KO ABENDUAREN 31N ITXITAKO EKITALDIAREN MEMORIA LABURTUA

1. OHARRA.- FUNDAZIOAREN JARDUERA

Iratzar Fundazioa 2014/05/15an sortu zen epe mugagaberako. Bere identifikazio fiskaleko zenbakia G75106534 da.

Fundazioaren egungo egoitza soziala ondokoa da:
Zuatzu Enpresa Parkea, Easo Eraikina, 4 behea
20018 Donostia

Fundazioaren helburu sozialak bere Estatutuen 5. artikuluan azaltzen dira, ondorengoak direlarik:

- SORTUren oinarri ideologikoak zabaltzea eta hedatzea, independentzia, euskalduntze betea, sozialismoa, askatasunean eta justizian oinarrituriko etorkizun baketsu bat, feminismoa, nazioarteko elkartasuna eta antiinperialista, demokrazia parte-hartzailea etab.
- Euskal Herri soberano baten alde, garapen sozialaren alde, demokrazia sakonago baten alde, mundu libre, justu eta solidarioago baten alde diharduten pertsona eta eragileen lanaren difusioan laguntzea.
- Euskal Herriaren aniztasuna errespetatuz bertako herrialde eta herrien arteko harremanak garatzea herritarrak elkar ezagutu daitezen.
- Ideia berriak eta eremu ezberdinetako hausnarketak zein ekarpenak jaso eta ezker abertzalerako baliagarriak direnak erabili.
- Proposamen berrien zein taldean eragiteko era berrien eztabaida eta ikasketak bultzatzea, etorkizunean gizarte inklusiboa, parekidea, jasangarria eta parte-hartzaile bat lortzea helburu izanik.
- Munduan zehar zein Euskal Herrian bertan, Euskal Herriaren defentsa subiranoaren alde lan egiten duten eta eskubide hau babesten duten eragile sozial, pertsona eta alderdi politikoekin harremanak garatu eta indartzea.
- Herrien askapenerako mugimenduekin eta ezkerreko sektoreetako eragile, pentsalari edo estrategekin aliantzak eta harreman sareak sortzea eta elkarbanatzen zein amankomunean ditugun ideia eta baloreen baitan agenda bat eratu eta hedatzea.
- Memoria historiko kolektiboa berreskuratzeko tresna bat izatea, dugun ezagutza historiko guztia artikulatu eta eztabaidagai jarri ahal izateko honek etorkizuneko erronkei ere aurre egiten lagunduko dielarik.

2023 ekitaldian zehar buruturiko jarduerak bere helburu sozialetan oinarrituak izan dira. Ez du merkataritza jarduerarik burutu.

Fundazioaren ekitaldi ekonomikoa 2023/01/01ean hasten da eta 2023/12/31n amaitzen da.

Fundazioa ez da inongo sozietate taldetakoa, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Fundazioaren moneta funtzionala euroa da.

2. OHARRA.- URTEKO KONTUEN AURKEZPEN OINARRIAK

2.1. Irudi zehatza

Erantsi diren 2023ko ekitaldiko urteko kontuak Patronatuko presidentek egin ditu, Fundazioaren 2023ko abenduaren 31ko kontabilitate-erregistroak oinarritzat hartuta. Kontu horietan, 1514/2007 Errege Dekretu bidez onartutako Kontabilitate Plan Orokorrean jasotako kontabilitate-printzipioak eta balorazio-irizpideak aplikatu dira, baita horien egokitzapen sektorialak ere, bereziki Plan Orokorra 1491/2011 Errege Dekretu bidez onartutako irabazi-asmorik gabeko erakundeetara egokitzeko arauak –2013ko martxoaren 26ko Ebazpen bidez onartutako irabazi-asmorik gabeko erakundeen Kontabilitate Plan Orokorrean xedatzen dira– eta kontabilitate-arloan indarrean dauden gainerako lege-xedapenak. Gainera, Fundazioaren ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi fidela erakusten dute.

Ez dago irudi fidela erakusteko kontabilitate-arloko lege-xedapenak ez aplikatzeko salbuespenezko arrazoirik.

Erantsitako Urteko Kontu hauek Patronatuak onetsi beharko ditu, aldaketarik gabe onetsiko direla uste delarik.

2.2. Nahitaezko ez diren kontabilitate-printzipioen aplikazioa

Ez da nahitaezko ez diren kontabilitate-printzipiorik aplikatu. Erantsita datozen Urteko Kontuak prestatzeko, Merkataritza Kodean, indarrean dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legean eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen Kontabilitate Plan Orokorrean ezarritako kontabilitate-printzipioak erabili dira. Urteko Kontu hauek prestatzean, horietan eragin esanguratsua izan dezaketen kontabilitate-printzipio den-denak aplikatu dira.

2.3. Ziurgabetasuna balioztatu eta zenbateteko alderdi kritikoak

Urteko Kontuak gauzatzean, Fundazioko zuzendaritzak burututako kalkuluak erabili dira, kontuetan agertzen diren zenbait aktibo, pasibo, diru-sarrera, gastu eta konpromiso balioztatzeko. Oinarrian, kalkulu horiek honako kontzeptu hauei dagokie:

- Aktiboak narriatzeagatik egon daitezkeen galerak (ikus 5. oharra).
- Aktibo materialen balio-bizitza (ikus 5. oharra).
- Jasotako diru-laguntzen aplikazioa (ikus 11. Oharra).

Kalkulu horiek 2023 ekitaldi-amaieran eskuragarri zegoen informaziorik onena oinarri izan duten arren, baliteke etorkizuneko gertaeren ondorioz hurrengo ekitaldietan kalkuluak aldatu behar izatea (jaistea edo igotzea). Hala ere, aldaketa horiek etorkizunerako aldaketak izango lirateke.

Azaldutakoa oinarri hartuta, Fundazioak funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioaren arabera egin ditu bere finantza-egoerak, eta ez dago hurrengo ekitaldian aktiboen edo pasiboen balioan aldaketa esanguratsurik eragin dezakeen inolako arrisku garrantzitsurik.

2.4. Informazioa alderatzea

Konparazioak egin ahal izateko, Balantzearen, Emaitzen Kontuaren eta Urteko Kontuen Memoriaren partida bakoitzean 2023 ekitaldiko eta horren aurreko ekitaldiko zenbakiak datoz.

Ez dago ekitaldiko urteko kontuak aurreko ekitaldikoekin alderatzea eragozten duen kausarik.

2.5. Hainbat partidetan adierazitako elementuak

Ekialdi-itxierako Balantzean eta Emaizen Kontuan ez dago bi partida edo gehiagotan adierazita dagoen ondare elementurik.

2.6. Kontabilitate irizpideen aldaketak

2023 ekitaldian ez da aldaketa esanguratsurik egon kontabilitate-irizpideetan, 2022 ekitaldian erabili zirenen aldean.

2.7. Akatsen zuzenketa

Urteko kontu hauek prestatzean, erreserbak 3.675,52 euroko zenbateko garbian murriztu dira, aurreko ekitaldian sortutako gastuen aitortpena.

Aurreko ekitaldiarekin alderatutako finantza-egoerak aurkeztu direnez, 2022 ekitaldiko urteko kontuetan adierazitako zenbatekoak aldatu behar izan dira, konparazioak egiteko soilik. Horrela, ondoren adierazitako 2022 ekitaldiko saldoak eta Patronatuak 2022 ekitaldiko Urteko Kontuetan onartutako saldoak ez datoz bat:

Kontzeptua	Pasibo arrunta	Ondare Garbia		Gastuak
		Emaiza	Guztira	
Aurreko ekitaldietako gastu fakturak	3.675,52	(3.675,52)	(3.675,52)	3.675,52
Guztira	3.675,52	(3.675,52)	(3.675,52)	3.675,52

3. OHARRA.- EKITALDIKO SOBERAKINA

Lehendakariak Patronatuari jarraian jasotako emaitzen aplikazioa aurkeztuko dio, Patronatuak onar dezan:

	2023	2022 (*)
<u>Banaketa-oinarriak</u>		
Ekiataldiko soberakina	51.027,47	3.935,79
<u>Aplikazioa</u>		
Borondatezko erreserbak	51.027,47	3.935,79

(*) 2022 ekitaldiko zutabearen adierazitako datuak Patronatuan onartutakoak dira, alderatzeko aldatu ez direlarik

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 29. artikulua arabera, fundazioaren helburuetarako, fundazioaren emaitzen kontuko diru-sarreraren %70 erabili behar da gutxienez. Emaizen kontua kalkulatzeko, kontzeptu guztiak hartuko dira kontuan, diru-sarrerak lortzeko egindako gastuak kendu ondoren, fundazioaren helburuak betetzeari dagozkionak izan ezik. Betebehar hori betetzeko, hiru urteko epea emango da, emaitzak eta diru-sarrerak lortzen diren unetik kontatzen hasita.

4. OHARRA.- ERREGISTRATZEKO ETA BALIOZTATZEKO ARAUAK

2023 ekitaldiko Urteko Kontuak prestatzean, Fundazioak erregistratze- eta balioztatze-arau hauek erabili ditu:

4.1. Ibilgetu materiala

Orokorrean, ibilgetuaren elementuak hasiera batean erosketa- edo ekoizpen-prezioaren arabera balioztatzen dira, eta, gero, murriztu egiten dira, metatutako amortizazioen eta narriadura-galeren arabera. Bizitza erabilgarria luzatzen ez duten konponketak eta mantentze-gastuak gauzatzen direneko ekitaldiaren Emaizten Kontuan jasotzen dira zuzenean. Ondasunen produktibitatea, gaitasuna edo eraginkortasuna hobetu edo bizitza erabilgarria luzatzen duten handitze-, berritze- eta hobetze-kostuak ondasunek kostu handiagoa balute bezala kapitalizatzen dira.

Amortizazioaren urteko zuzkidura metodo linealaren bitartez kalkulatzen da. Horretarako, funtzionatzen hasi zenetik ondasunak duen bizitza erabilgarria kontuan hartzen da, ehuneko hauek oinarri hartuta:

Kontzeptua	Amortizazio %a
Eraikuntzak	3%
Beste instalazio batzuk	15%
Altzariak	15%
Ekipo informatikoak	25%

Balioa narriatzea:

Fundazioaren ustez, ez dago Aktiboen balio berreskuragarria murrizten duten balio-galerak egon daitezkeela adierazten duten zantzurik; beraz, ez da "Narriadura-testik" egin behar, zenbateko berreskuragarria zenbatesteke.

4.2. Alokairuak

Finantza-alkairutzat sailkatzen dira alokairuen baldintzetan ezartzen denean funtsean maizterrak bere gain hartzen dituela kontratuaren xede den aktiboaren jabetzari dagozkion arriskuak eta irabaziak. Gainerako alokairuak, alokairu operatiboak dira.

Alokairu operatiboa

Alokairu operatiboetako akordioetatik eratorritako gastuak horiek gauzatzen direneko ekitaldiaren Galdu-Irabazien Kontuan jasotzen dira.

Alokairu operatiboa kontratatzean egiten den beste edozein kobratze edo ordainketa kobratze edo ordainketa aurreratutzat hartuko da, eta alokairu-epetan zehar izandako emaitzetan egotzi, alokatutako aktiboaren irabaziak lagatzen edo jasotzen diren heinean.

4.3. Finantza-tresnak

Finantza-tresnen kapituluan, Fundazioak erregistratuta dauzka enpresa batean finantza-aktiboa sortzen duten kontratu guztiak, baita beste enpresa batean finantza-pasibo edo ondare-tresna bat sortzen dutenak ere. Horrenbestez, arau hau aplikatuko zaie honako finantza-tresna hauei:

- a) Finantza-aktiboak:
- Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak.
 - Eragiketa komertzialengatik kredituak: bezeroak eta zordunak.
 - Hirugarrenentzako kredituak: emandako maileguak eta finantza-kredituak, aktibo ez-korronteen salmentatik sortutakoak barne.
 - Bestelako finantza-aktiboak: kreditu-erakundeetako gordailuak, langileentzako aurrerakinak eta kredituak, sortutako fidantzak eta gordailuak, eta kobratu beharreko dibidenduak.
- b) Finantza-pasiboak:
- Eragiketa komertzialek eragindako zorrak: hornitzaileak eta hartzekodunak.
 - Kreditu-erakundeekiko zorrak.
 - Sortutako betebeharrak eta bestelako balore negoziagarriak: bonuak eta zor-agiriak.
 - Enpresarentzako balorazio kaltegarria duten deribatutakoak: besteak beste, etorkizunekoak, aukerak, finantza-trukeak eta epe luzerako atzerri-diruaren salerosketa.
 - Ezaugarri bereziak dituzten zorrak.
 - Bestelako finantza-pasibo batzuk: hirugarrenekiko zorrak, hala nola kreditu-erakundeak ez diren pertsona edo enpresengandik jasotako maileguak eta finantza-kredituak. Horien artean sartzen dira, halaber, aktibo ez-korronteak erostean sortutakoak, jasotako fidantzak eta gordailuak, eta hirugarrenek partizipazioekin lotuta galdatutako ordainketak.
- c) Norbere ondarearen tresnei: norbere funtsetan sartzen diren finantza-tresna guztiak, hala nola jaulkitako akzio arruntak.

4.3.1. Finantza-aktiboak

Sozietatearen finantza-aktiboak kategoria hauetan sailkatzen dira:

- a) Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak. Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk honako hauek jasotzen dituzte: aurrezki-kutxan dagoen eskudirua, kreditu-erakundeetako ageriko gordailuak eta likidez handiko epe laburrerako beste inbertsio batzuk, gehienez hiru hilabeteko berezko epemuga dutenak eskuratze-egunetik hasita.

Balioa narriatzea

Ekitaldia ixtean, narriadura-testa egiten da arrazoizko balioarekin jaso ez diren finantza-aktiboetan. Narriatu direla irizten zaio finantza-aktiboaren balio berreskuragarria liburuetan duen balioa baino gutxiago denean. Hori gertatzen denean, narriatze hori Galdu-lrabazien Kontuan jasotzen da.

Zehazki, eta zordun komertzialei eta kobratzeke dauden beste kontuen balioztatze-zuzenketei dagokienez, horiek kalkulatzeko Sozietateak kontuan hartzen ditu ordainketa atzeratuak izateagatik, ordaindu ez izanagatik, kaudimen-ezagatik edo bestelako kausaren batengatik egoera irregularrean dauden bezeroen zorrak, zor horiek kobratzeko aukerarik dagoen indibidualki aztertu ostean.

Finantza-aktiboak bajaran ematea

Sozietateak finantza-aktiboak bajaran ematen ditu horiek iraungitzen direnean edo finantza-aktiboak dagokien fluxuen gaineko eskubideak laga direnean eta horien jabetzari dagokien arriskuak eta irabaziak transferitu direnean, esaterako: aktiboen salmenta irmoak; "factoring" eragiketetan kreditu komertzialak lagatzea, enpresak inolako kreditu- edo interes-arriskurik hartu gabe; finantza-aktiboak saltzea, arrazoizko balioan berriz erosteko aukera adostuta; eta finantza-aktiboak titulizatzea, enpresa lagatzaileak mendeko finantza-aktiboak atxikitzen ez dituztenean eta ez duenean bermerik ematen edo arriskurik bere gain hartzen.

Aitzitik, Sozietateak ez ditu finantza-aktiboak bajaran ematen eta finantza-pasiboa aitortzen die emandako ordainaren balioak den zenbateko batean, finantza-aktibo horiek lagatzen direnean eta jabetzari dagozkion irabaziak eta arriskuak mantentzen dituzenean, esaterako: eraginak deskontatzea; "factoring-a errekurtsoarekin"; finantza-aktiboak saltzea, prezio finkoa edo salmenta prezioa gehi interesak ordainduz berriz erosteko aukerarekin; eta finantza-aktiboak titulizatzea, enpresa lagatzaileak bere gain hartzen dituzenean mendeko edo galdera posible guztiak estaltzen dituen berme bat.

4.3.2. Finantza-pasiboak

Finantza-pasiboak dira Fundazioak ordaintzeke dituen zorrak eta partidak, enpresaren ondasunak erosteagatik eta trafiko-eragiketetan jasotako zerbitzuengatik sortu direnean. Horrez gain, finantza-pasibo dira, jatorria merkataritzan izan ez arren, ezin direnak eratorritako finantza-tresnatzat hartu.

Ordaintzeke dauden zorrak eta partidak hasiera batean emandako ordainaren arrazoizko balioarekin zenbatesten dira, zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuetara egokituta. Geroago, pasibo horiek beren kostu amortizatuaren arabera balioztatzen dira.

Fundazioak finantza-pasiboak bajaran ematen ditu horiek sortu dituzten obligazioak iraungitzen direnean.

Finantza-aktiboak bezala, gehienez urtebeteko epemuga daukaten eta kontratu-interesik ez duten merkataritza-eragiketen zorrak balio nominalaren arabera balioztatzen dira, horiek epe laburrean ordaintzea espero denean. Balio nominalak ez du alde handirik izaten arrazoizko balioarekin.

4.4. Norbere jardueragatiko kredituak eta zorrak

Arau hau aplikatuko zaie honako aktibo eta pasibo hauei:

- a) Norbere jardueragatiko kredituei: norbere jarduera garatzean sortzen diren kobratzeko eskubideak dira, onuradunei, erabiltzaileei, babesleei eta afiliatuei dagokienez.
- b) Norbere jardueragatiko zorrei: erakundearen onuradunei beren helburuak betetzen laguntzeko laguntzak eta bestelako esleipenak emateagatik sortzen diren betebeharrak dira.

Kredituen hasierako eta geroko balorazioa.

Babesle, afiliatu eta beste zordun batzuek ematen dituzten eta epe laburrera iraungitzen diren kuotek, dohaintzek eta antzeko beste laguntza batzuek kobratzeko eskubidea sortzen dute, eta eskubide hori balio nominalaren arabera kontabilizatzen da. Epemuga gaintzen bada, uneko balioaren arabera aintzatetsiko dira. Uneko balioaren eta kredituaren balio nominalaren arteko aldea finantza-sarrera gisa erregistratuko da emaitzen kontuan, amortizatutako kostuaren irizpidearekin bat etorritik.

Norbere jardueran zehar zero interes-tasan edo merkatuko interesaren azpitik emandako maileguak horien arrazoizko balioaren arabera kontabilizatzen dira. Arrazoizko balioaren eta emandako zenbatekoaren arteko aldea emaitzen kontuan egindako gastu gisa aintzatesten da hasiera batean, haren izaeraren arabera. Hasierako balioespena egin ondoren, egindako deskontuaren itzulketan finantza-sarrera gisa kontabilizatuko da emaitzen kontuan.

Ekitaldi-itxieran, beharrezkotzat jotzen diren balio-zuzenketak egiten dira, aktibo horietan balio-narriadura gertatu dela nabarmen ikusten denean.

Zorren hasierako eta geroko balorazioa.

Erakundeak onuradunei ematen dizkieten eta epe laburrera iraungitzen diren laguntzek eta bestelako esleipenek balio nominalaren arabera pasiboa sortzen dute. Epemuga gainditzen bada, uneko balioaren arabera aintzatetsiko dira. Uneko balioaren eta zorren balio nominalaren arteko aldea finantza-gastu gisa kontabilizatuko da emaitzen kontuan, amortizatutako kostuaren irizpidearekin bat etorriz.

Laguntza hainbat urtetarako ematen bada, pasiboa konprometitutako zenbateko irmoaren uneko balioarekin erregistratuko da, modu ezeztazinean eta baldintzarik gabe. Irizpide hori bera aplikatzen da laguntza luzatzeko aldi behingo ebaluazioak egin behar ez diren kasuetan, hau da, izapide formalak edo administratiboak baino bete behar ez direnean.

4.5. Irabazien gaineko zergak

Irabazien gaineko zergaren ondoriozko gastuak edo diru-sarrerak barne hartzen dituzte zerga arrunta eta zerga geroratuaren gastua edo diru-sarrera.

Zerga arrunta deritza Fundazioak ekitaldi baten irabazien gaineko zerga likidatzean ordaintzen duen zenbatekoari. Zerga arrunta murriztu egiten da, dedukzioak eta bestelako zerga-abantailak daudenean (atxikipenak eta konturako ordainketak salbu) eta aurreko ekitaldietan izandako zerga-galera konpentsagarriak uneko ekitaldian aplikatzen direnean.

Zerga geroratuaren gastua edo diru-sarrera bat dator zerga geroratuaren aktiboak edo pasiboaren aitortpenarekin edo kitapenarekin. Horiek behin-behineko aldeak barne hartzen dituzte, hau da, pasiboaren eta aktiboaren liburuaren eta horien zerga-balioaren artean dagoen aldea, hori ordaindu edo berreskura daitekeela aurreikusten denean. Halaber, barne hartzen dituzte berdintzeke dauden zerga-oinarri negatiboak eta aplikatu gabeko zerga-dedukzioen kredituak. Zenbateko horiek erregistratzeko, dagokion behin-behineko aldeari edo kredituari horiek berreskuratzean edo kitatzean espero den zerga-tipoa aplikatzen zaio.

Behin-behineko alde ezgarri guztietan, zerga geroratuaren ondoriozko pasiboak aitortuko dira, merkataritza-funtsak edo bestelako pasiboak eta aktiboak zerga- eta kontabilitate-emaizari eragiten ez dien negozioez kanpoko eragiketa batean aitortzen direnean salbu. Halaber, mendeko edo bazkide diren enpresetan eta negozio bateratuaren, zerga geroratuaren ondoriozko pasiboak aitortuko dira, Fundazioak ezin duenean lehengoratzeari kontrolatu eta ez dirudienean lehengoratu direla.

Bestalde, zerga geroratuaren ondoriozko pasiboak aitortuko dira, baldin eta aurreikusten bada Fundazioak etorkizunean horiek efektibo bihurtzeko moduko zerga-irabaziak izango dituela.

Zerga geroratuaren ondoriozko aktiboak eta pasiboak kontrapartidekin batera Ondare Garbian jasotzen dira, ondare-kontuetan zuzeneko karguak edo abonua egiten dituzten eragiketetan sortzen direnean.

Kontabilitate-ekitaldi bakoitza ixtean, erregistratutako zerga geroratuaren aktiboak kontuan hartuko dira, eta dagozkion zuzenketak egin, etorkizunean berreskuratuko direla zalantzan badago.

Era berean, ekitaldi bakoitza ixtean, Balantzean erregistratu gabeko zerga geroratuaren aktiboak ebaluatzen dira, eta baita aitortu ere, etorkizunean zerga-onuren bidez berreskuratuko direla uste bada.

4.6. Irabazi-asmorik gabeko erakundeen gastu eta diru-sarrera propioak

Gastuak.

Erakundeak egindako gastuak gastu horiek egin diren ekitaldiko emaitzen kontuan kontabilizatzen dira, finantza-korrontea noiz egin den kontuan hartu gabe. Zehazki, erakundeak emandako laguntzak emakida onartzen den unean bertan aitortzen dira.

Hainbat urtetarako gastuak.

Erakundeak irmotasunez emandako laguntzak eta hainbat urtetarako konprometitutako bestelako gastuak horiek ematea onartu den ekitaldiko emaitzen kontuan kontabilizatzen dira; pasiboaren kontu batean ordainduko dira, eta hartutako konpromisoaren uneko balioa izango dute.

Diru-sarrerak.

Erakundearen helburuekin bat etorritz, diru-sarrerak kontabilizatzean honako arau hauek hartzen dira kontuan:

- a) Ondasunak entregatzeagatiko edo zerbitzuak emateagatiko diru-sarrerak adostutako zenbatekoarekin baloratuko dira.
- b) Erabiltzaileen edo afiliatuen kuotak diru-sarrera gisa hartuko dira dagokien aldian.
- c) Baliabideak, babesleak eta lankidetzak erakartzeko promozioetatik eratorritako diru-sarrerak kanpainak eta ekitaldiak gertatzen direnean aitortzen dira.
- d) Nolanahi ere, beharrezkotzat jotzen diren periodifikatzeak egiten dira.

4.7. Zuzkidurak eta kontingentziak

Sozietatearen administratzaileek Urteko Kontuetan bi kontzeptu hauek bereizten dituzte:

- Zuzkidurak: iraganeko jazoeretatik eratorritako obligazioak estaltzen dituzten saldo hartzekodunak. Horiek kitatzean, litekeena da baliabideak gastatu behar izatea; baina ezinezkoa izan ohi da saldoen zenbatekoa eta/edo noiz kitatuko diren zehaztu.
- Pasibo kontingenteak: iraganeko jazoeretatik erator litezkeen obligazioak, etorkizunean obligazio horiek gauzatzea Sozietateak kontrola ezin ditzakeen gertaeren mende dagoenean.

Obligazioa bete beharko dela berau saihestuko dela baino ziurragoa denean, horren zuzkidura Urteko Kontuetan jasotzen da. Pasibo kontingenteak ez dira Urteko Kontuetan jasotzen. Horren ordez, memoriako oharretan horien berri ematen da, ez badira urrunekotzat hartzen.

Zuzkidurak balioztatzeko, oinarritzat hartzen da obligazioa kitatzeko edo transferitzeko behar den zenbatekoaren balioztatzerik onena, jazoeraren eta horren ondorioen informazioa aintzat izanik. Horrez gain, zuzkidurak eguneratzean sortzen diren egokitzapenak finantza-gastu gisa jasotzen dira, gastua egiten den heinean.

Obligazioa kitatzean hirugarrenek ematen duten konpentsazioa aktibotzat jasotzen da, zenbateko hori jasoko dela ziurra denean. Aitzitik, lege-loturaren baten bidez arriskuaren parte bat kanporatu eta Sozietatea erantzukizunaz libratzen bada, konpentsazioa kontuan hartuko da zuzkiduraren zenbatekoa kalkulatzeko.

4.8. Pentsioengatik konpromisoak

Fundazioak ez du inolako konpromisorik bere langileekin arlo horretan, ez kontratu bidez, ez hitzarmen kolektiboz.

4.9. Kaleratzeengatik kalte-ordainak

Indarreko lan-araudiarekin bat, Fundazioa behartua dago baldintza jakin batzuetan lan harremanak hausten dituzten langileei kalte-ordainak ordaintzera. Ez dago arrazoi objektiborik kontzeptu horrengatik hornidura bat kontabilizatzea beharrezkoa egiten duenik.

4.10. Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak

Sozietateak jasotako diru-laguntzak kontabilizatzerakoan, irizpide hauek jarraitu dira:

Itzul ezin daitezkeen diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak zuzenean diru-sarrerara gisa sartzen dira Ondare Garbian, eta Galdu-Irabazien Kontuan diru-sarreratzat aitortzen dira, oinarri sistematiko eta arrazional baten gainean, diru-laguntzarekin lotutako gastutik edo inbertsioetik eratorritako gastuekin korrelazioan jarrita.

Galdu-Irabazien Kontuan jasotzerakoan, diru-laguntza, dohaintza eta legatu mota hauek bereiziko dira:

- a) Gutxieneko errentagarritasuna bermatzeko edo ustiapen-defizita orekatzeko ematen direnean: ematen direneko ekitaldiaren diru-sarrera gisa jasoko dira, hurrengo ekitaldietako ustiapen-defizita finantzatzeko erabiltzen direnean salbu; azken kasu horretan, dagokion ekitaldian jasoko dira.
- b) Gastu zehatzak finantzatzeko erabiltzen direnean: diru-sarreratzat jasoko dira, finantzatzen dituzten gastuak sortzen direneko ekitaldi berean.
- c) Aktiboak eskuratzeko ematen direnean, ekitaldiaren diru-sarrera gisa jasoko dira, zuzkidurarekin proportzioan eta ekitaldi horretan elementu horietarako egindako amortizazioaren arabera. Elementuak besterentzen badira, Balantzean zuzenduko dira, narriaduragatik edo baja emateagatik.

Itzul daitezkeen diru-laguntzak, dohaintza eta legatuak Sozietatearen pasibo gisa jasoko dira, itzuli ezin diren arte.

4.11. Lotutako aldeekin transakzioak

Sozietateak merkatu-balioetara lotutakoekin egiten ditu eragiketa guztiak. Horrez gain, transferentzia-prezioak behar besteko euskarria dutenez, Sozietateko administratzaileek uste dute ez dagoela etorkizunean kontuan hartu beharreko pasiboak sortuko dituen arrisku esanguratsurik alde horretatik.

5. OHARRA.- IBILGETU MATERIALA

Hau izan da 2023 eta 2022 ekitaldietako osaera eta mugimendua:

DESKRIBAPENA	2021/12/31	Gehikuntzak	2022/12/31	Gehikuntzak	2023/12/31
Ibilgetu Materiala					
Lurrak	305.624,76		305.624,76		305.624,76
Eraikuntzak	81.375,24		81.375,24		81.375,24
Beste instalazio batzuk	0,00		0,00	42.909,24	42.909,24
Altzariak	1.946,16		1.946,16	8.416,18	10.362,34
Ekipo informatikoak	7.589,68		7.589,68		7.589,68
Guztira	396.535,84	0,00	396.535,84	51.325,42	447.861,26
Metatutako Amortizazioa					
Eraikuntzak	8.367,15	2.441,25	10.808,40	2.441,25	13.249,65
Beste instalazio batzuk	0,00		0,00	687,72	687,72
Altzariak	563,11	291,92	855,03	1.236,14	2.091,17
Ekipo informatikoak	7.028,51	179,99	7.208,50	179,99	7.388,49
Guztira	15.958,77	2.913,16	18.871,93	4.545,10	23.417,03
Ibilgetu Material Garbia	380.577,07		377.663,91		424.444,23

2018 ekitaldian, Fundazioak 387.000,00 euroko balioko higiezin bat jaso zuen Txingar Kultur Elkartearen dohaintza bidez. Balio hori Aktibo ez-korrontearen «Ibilgetu immateriala» epigrafean kontabilizatu zen, eta kontrapartida gisa, Ondare Garbiaren «Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak» epigrafean. 2022 eta 2021 ekitaldietan 2.441,25 euroko gastu bat eta diru-sarrera bat erregistratu dira urteroko amortizazioagatik eta ibilgetuaren elementu horri lotutako dohaintzaren emaitzen egozpenagatik, hurrenez hurren (*ikus 11.oharra*).

Horrez gain, aurtengo ekitaldian errentamendu kontratua sinatu da Bilboko bulego komertzial bat alokatzeko. Hasierako iraupena 7 urtekoa da, eta urtez urte luza daiteke. Kontzeptu honengatik ekitaldian sortutako gastua 30.492,00 eurokoa da.

6. OHARRA.- FINANTZA-PASIBOAK

2023 eta 2022 ekitaldien itxieran zeuden finantza-pasiboak, epe luzekoak nahiz laburrekoak eta Administrazio Publikoarekiko saldoak kontutan izan gabe, ondoren zehazten direnak dira:

Kategoriak	Motak	Epe laburreko finantza-tresnak				Guztira	
		Kreditu erakundeekiko zorrak		Eratortitako beste batzuk			
		2023	2022	2023	2022	2023	2022
Pasibo finantzarioak amortizatutako kostuan		267,99	301,73	17.588,90	46.778,64	17.856,89	47.080,37
GUZTIRA/ TOTAL		267,99	301,73	17.588,90	46.778,64	17.856,89	47.080,37

Epigrafe honetan erregistratutako kontzeptu nagusiak ondorengoak dira:

- hartzekodunen saldoak eragiketa komertzialengatik.
- kreditu erakundeekiko zorrak kreditu txarteletako saldo hartzekodunengatik.

7. OHARRA.- JARDUERAREN ERABILTZAILEAK ETA BESTE ZORDUN BATZUK

Fundazioaren estatutuen arabera, Fundazioaren jardunaren onuradunak alde zuzenetik zehatu beharreko pertsonak izango dira.

2023ko ekitaldiaren itxieran kontzeptu hauengatik kobratzeko dagoen saldoa 5.957,78 eurokoa da (0,00 euro 2022ko ekitaldiaren itxieran).

Erakunde publikoek emandako diru-laguntzetatik sortutako saldoak "Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak" epigrafean ageri dira (Ikus 9.oharra).

Horrez gain, epe luzean, 2023ko ekitaldian formalizatutako errentamendu-kontratuaren ondorioz emandako fidantza ageri da, 10.800,00 eurokoa (Ikus 5.oharra).

8. OHARRA.- BEREZKO FUNTSAK

8.1.1. Fundazioaren zuzkidura:

"SORTU" bazkide sortzaile bakarrak egindako 30.000,00 euroko hasierako ekarpenak osatzen du Fundazioaren zuzkidura.

8.1.2. Ekitaldiko mugimenduen taula:

Deskribapena	2021/12/31	Gehitzeak	Gutxitzeak	2022/12/31	Gehitzeak	Gutxitzeak	2023/12/31
Fundazioaren zuzkidura	30.000,00	0,00	0,00	30.000,00	0,00	0,00	30.000,00
Borondatezko erreserbak	57.068,85	8.503,30	(3.675,52)	61.896,63	3.935,79	0,00	65.832,42
Ekitaldiko soberakina	8.503,30	3.935,79	(8.503,30)	3.935,79	51.027,47	(3.935,79)	51.027,47
Guztira	95.572,15	12.439,09	(12.178,82)	95.832,42	54.963,26	(3.935,79)	146.859,89

9. OHARRA.- ZERGA EGOERA

9.1. Fundazioak 2023 eta 2022 ekitaldien itxieran Administrazio Publikoekin zituen saldoen xehetasunak ondorengoak dira:

Kontzeptua	2023		2022	
	Zordun	Hartzekodun	Zordun	Hartzekodun
Ogasun Publikoa BEZ hartzekoduna	142,00	0,00	0,00	0,00
Ogasun Publikoa, emandako diru-laguntzengatik zordun	107.512,73	0,00	94.285,29	0,00
Ogasun Publikoak PFEZ hartzekoduna	0,00	19.421,14	0,00	11.806,57
Gizarte Segurantzaren erakundeak hartzekodunak	0,00	13.161,58	0,00	9.009,36
Guztira	107.654,73	32.582,72	94.285,29	20.815,93

9.2. Honela berdinkatzen dira kontabilitate-emaizten eta Sozietate Zergaren zerga-oinarria:

Kontzeptua	2023	2022 (*)
Kontabilitate-emaizta zergen aurretik	51.027,47	3.935,79
Diferentzia iraunkorrak		
Positiboak - gastu salbuetsiak	783.718,67	604.406,01
Negatiboak - diru-sarrera salbuetsiak	(834.746,14)	(608.341,80)
Aurreko zerga-oinarria	0,00	0,00
Zerga-oinarria	0,00	0,00

(*) 2022 ekitaldiko zutabearen adierazitako datuak datoz bat 2022 ekitaldiko Urteko Kontuen Emaizten Kontuko 2022 ekitaldiko zutabearekin.

9.3. Indarrean dauden lege-xedapenen arabera, zergen likidazioak ezin dira behin betikotzat hartu agintari fiskalek horiek ikuskatu arte edo lau urteko preskripzio-epea igaro arte.

Fundazioak ikuskatzeko dauzka azken lau ekitaldietako zerga guztiak. Administrazio-organoaren arabera, ez dago zenbatekoen kontingentzia esanguratsurik ikuskatu beharreko berrikuspenen ondorioz.

Zerga horrekin lotutako 2023ko ekitaldirako zenbatekoak kalkulatu dira, baita ikuskatzeko dauden ekitaldietakoak ere, ekitaldi bakoitzaren itxieran indarrean dagoen foru-araudiaren arabera.

Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauaren II. Tituluaren arabera, fundazioek salbuespenak izango dituzte sozietateen gaineko zergan, honako errenta hauetan: erakundearen xedeetan laguntzeko jasotako ekarpen eta dohaintzetan, eta arau honek 26. artikuluan araututako lankidetzahitzarmenen arabera emandako laguntza ekonomikoetan; dirulaguntzetan, salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoak finantzatzeko helburua dutenetan izan ezik; erakundearen ondare higikor eta higiezinetik datozen errentetan; ondasunak edo eskubideak edozein titulu bidez eskuratuz edo eskualdatuz lortu diren errentetan; ustiapen ekonomiko salbuetsiak gauzatzean lortutako errentetan. Horrenbestez, fundazioen sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarrian salbuetsi gabeko ustiapen ekonomikoetatik eratorritako errentak bakarrik sartuko dira.

Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubidea aplikatzeko erregelamenduan ezarritakoa betetzeko, honako informazio hau erantsi da:

- Errenta guztiak salbuetsita daude (3/2004 Foru Arauaren 8.1 eta 9. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera), baita horiek lortzeko gastuak ere.
- Bestalde, 12. oharrean Fundazioak garatzen duen jarduera bakoitzean ekitaldian zehar egindako diru-sarrerak, gastuak eta inbertsioak banatzen dira, baita Fundazioak lortutako diru-sarrera garbien xedea ere.
- Patronatuko kideen karguak ordaindu gabeak dira eta, beraz, ez zaie inolako ordainketarik egin 2023an eta 2022ean.
- Fundazioak ez du partizipaziorik merkataritzazozietateetan.
- Fundazioak 12. oharrean zehazten diren lankidetzahitzarmenak sinatu ditu.
- Erakundearen estatutuetan jasota dago likidazio baten kasuan, likidazioa egin ondoren geratzen diren ondasunen eta eskubideen jasotzaileak honakoak izan daitezkeela: irabazi asmorik gabeko beste fundazio edo entitate pribatu batzuk, edo fundazio izaera ez duten eta interes orokorreko helburuak dituzten entitate publikoak. Betiere, fundazio edo entitate pribatu horiek honako baldintzak bete behar dituzte: interes orokorreko helburuak izatea, desegite kasurako ere ondasunak helburu horiek betetzeari atxikita edukitzea, eta Irabazi Asmorik gabeko Entitateen eta Mezenasgorako Pizgarri Fiskalen Zerga Erregimenari buruzko 49/2002 Legeko 16-25. artikuluetan ezarritakoaren ondorioetarako mezenasgoaren entitate onuraduna izateko baldintzak betetzea.

9.4. Beste zerga batzuk: ez dago inguruabar edo kontingentzia esanguratsurik beste tributu batzuei dagokienez.

10. OHARRA.- DIRU-SARRERAK ETA GASTUAK

10.1. Pertsonal-gastuak: Epigrafe honen banakatzea ondorengoa da:

Kontzeptua	2023	2022
Soldata eta lansariak	387.721,29	282.679,73
Gizarte Segurantzaren enpresaren kontura	112.547,66	82.656,24
Bestelako karga sozialak	4.171,00	7.657,46
Guztira	504.439,95	372.993,43

10.2. Jarduerako bestelako gastuak: Epigrafe honen banakatzea ondorengoa da:

Kontzeptua	2023	2022
Kanpo-zerbitzuak	274.076,57	228.527,97
Zergak	657,05	0,00
Guztira	274.733,62	228.527,97

11. OHARRA.- DIRU-LAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK

Fundazioak jasotako diru-laguntzak 2023 eta 2022 ekitaldietako Emaizten Kontuan jasota daude. Horiei buruzko informazioa zehazten da ondoren:

Kontzeptua	Erakundea	Urtea	Hasierako zenbatekoa	Diru-sarrerak 2022	Diru-sarreretan jasotzeke 31.12.22	Diru-sarrerak 2023	Diru-sarreretan jasotzeke 31.12.23
<u>Diru-laguntzak</u>							
Eusko Jauriaritza	Administrazio autonomikoa	2022	91.186,00	91.186,00	0,00	0,00	0,00
Ministerio de Cultura y Deporte	Estatu administrazioa	2022	3.099,29	3.099,29	0,00	0,00	0,00
Eusko Jauriaritza	Administrazio autonomikoa	2023	103.971,00	0,00	0,00	103.971,00	0,00
Ministerio de Cultura y Deporte	Estatu administrazioa	2023	3.683,73	0,00	0,00	3.683,73	0,00
Sortu	Alderdi politikoa	2023	51.325,42	0,00	0,00	1.923,86	49.401,56
<u>Dohaintzak</u>							
Txingar Elkartea (5.oharra)	Kultur elkarteak	2018	387.000,00	2.441,26	376.191,58	2.441,26	373.750,33
Sortu	Alderdi politikoa	2022	510.000,00	510.000,00	0,00	0,00	0,00
Sortu	Alderdi politikoa	2023	716.674,58	0,00	0,00	716.674,58	0,00
Guztira				606.726,55	376.191,58	828.694,42	423.151,89

Fundazioak diru-sarrerei eta dohaintzei dagozkien zenbatekoak egotzi dizkie, arestian aipatutako diru-laguntzak eta dohaintzak jaso eta baliatzeko behar diren baldintzak zenbateraino bete diren kontuan hartuta.

12. OHARRA.- ERAKUNDEAREN JARDUERA. ONDAREKO ELEMENTUAK NORBERAREN XEDEEI APLIKATZEA. ADMINISTRATZIO-GASTUAK.

12.1. Erakundearen jarduera

I.- Burututako jarduerak

Fundazioak proiektu hauek burutu ditu nagusiki 2023.ekitaldian:

Jardueraren izena	Jarduera mota	Jardueraren sektorea	Jarduera burutu den lekua	Jardueren deskripzioa
Eskola Politikoa	Jarduera propioa	Hitzaldi eskaintza ezberdinak	Iratzar aretoa eta beste hainbat leku	- Iratzar Kafeak: online bidezko hitzaldi eskaintza fundazioaren youtube kanalean. Nazioartea, iparrorratza liburuak, iragana eta transmisioa, etxebizitza, hauteskundeak, eskuin muturra, zaintza, krisi ekosoziala... - Iparrorratza liburuen inguruko aurkezpen eta solasaldiak: "Gureak ere badira. Desira, boterea, epika." eta "Barbaroak ala zibilizatuak. Euskal gatazken eskuliburu materialista". - Gai ezberdinei buruz herri ezberdinetan burututako hitzaldiak: "Krisia(k) eta burujabetza(k)", "Askapen prozesuaren dialektika XXI. mendean" edota "Zer gertatzen ari da Palestinan?". "Krisiak eta burujabetzak", "Ezker erreakzioarioaz", "Eskuin muturraren gorakadaren zergatiak". "Lawfare" buruzko seminarioa.
Argitalpenak	Jarduera propioa	Fundazioaren argitalpen, azterketa eta prospekzioarekin lotutako jaruera	Toki ezberdinak. Prestaketa, fundazioaren egoitzan	- Iparrorratza Bildumaren 7. eta 8. eskuliburuaren argitalpena. "Adaxka lehorrak" eta "Ez dadin bizitza eten" liburuak. - "Munduari so" hausnarketa, "Hausnarketa feminista" eta "Egoera sozioekonomikoaren gaineko hausnarketa". "Markogintza mintegia" EH Bilduko hautetsiekin batera. - UEU (Udako Euskal Unibertsitatea)-rekin batera antolatutako "Euskal Herria maitea. Afektuak eta euskal askapen desira gaur egun".
ERRIA aldizkariaren publikazioak	Jarduera propioa	Erria aldizkaria eta webgunea	Fundazioaren egoitza	- Fundazioaren proiektu komunikatiboaren ardatza diren 9. eta 10. aleen argitalpena. - Erria aldizkariaren 11. (Hezkuntza, europako prozesu soberanistak eta artearen eta politikaren arteko harremana) eta 12. aleak (etxebizitza, eskuin muturraren analisisa eta Storytelling-a politikagintzan) - Erria webgunearen mantenua eta elikadura eta Erria sarea.
Trebakuntza politikoa	Jarduera propioa	Formakuntza ekintzak	Toki ezberdinak. Prestaketa, fundazioaren egoitzan	- "Gakoak" eta "Kalaka" trebakuntza zikloak. - EHU bekak. - "Zumea" trebakuntza ziklo garatua eta "Arduradunen trebakuntza" - Iratzar eta Sortuko langileentzat bideratutako trebakuntza saio ezberdinak, "Etxea eraldatuz" trebakuntzaz gain.
Iratzar Harremanak	Jarduera propioa	Fundazio eta eragile ezberdinekin saretzea	Euskal Herria, espainiar estatua, frantziar estatua eta nazioartea.	- Espainiar estatuko Fundazio Soberanisten Foroa eta III.Eskola Soberanista. - Transform Europe! Sarearen batzar orokorra eta bere baitako partehartzea (Future factory) - Clacsorekin irekitako jarduerak - Sao Paoloko foroa - Nazioarteko esperientzien trebakuntza konparatuak - Giza eskubideak, kultura eta memoria - Coppieters-ekin mintegiaren antolakuntza - Rosa Luxemburg - Marxem conference 2023 talde antolatzailea
Artxiboa	Jarduera propioa	Memoria lantzen eta plazaratzen	Fundazioaren egoitza	- Artxiboa eraikitzen ekimenean euskarri ezberdinetako dokumentu historikoen digitalizazioa. - Memoria plazaratzen. - Elkarriketak. Testigantzen bilduma: Euskal Herriko historiaren parte diren zenbait pertsonen testigantza pertsonal eta politikoak jasotzea. - Hainbat efemeride aprobetatzatuz memoria ariketak plazaratzea Iratzar Fundazioaren sare sozialen bidez.

a) Jarduerari erlazionatutako Giza baliabideak:

2023 ekitaldia

Mota	Zenbakia		Ordu kopurua	
	Aurreikusia	Burutua	Aurreikusia	Burutua
Soldatapeko langileak	9,00	11,00	15.570,00	19.030,00
Guztira	9,00	11,00	15.570,00	19.030,00

2022 ekitaldia

Mota	Zenbakia		Ordu kopurua	
	Aurreikusia	Burutua	Aurreikusia	Burutua
Soldatapeko langileak	9,00	9,00	16.200,00	16.200,00
Guztira	9,00	9,00	16.200,00	16.200,00

b) Jarduerari erlazionatutako erabiltzaileak edo onuradunak

2023 ekitaldia

Mota	Zenbakia	
	Aurreikusia	Burutua
Pertsona fisikoak	24.000	47.500
Pertsona juridikoak	70	75
Guztira	24.070	47.575

2022 ekitaldia

Mota	Zenbakia	
	Aurreikusia	Burutua
Pertsona fisikoak	24.300	47.500
Pertsona juridikoak	83	75
Guztira	24.383	47.575

II. Erakundeak aplikatutako baliabide ekonomikoak.

Gastuak / Inbertsioak	2023		2022	
	Aurreikusia	Burutua	Aurreikusia	Burutua
Pertsonal-gastuak	(408.000,00)	(504.439,95)	(378.000,00)	(372.993,43)
Jarduerako bestelako gastuak	(215.000,00)	(274.733,62)	(172.000,00)	(232.203,49)
Ibilgeturaren amortizazioa	0,00	(4.545,10)	0,00	(2.913,16)
Gastuak guztira	(623.000,00)	(783.718,67)	(550.000,00)	(608.110,08)
Ibilgetu erosketak	0,00	(51.325,42)	0,00	0,00
Inbertsioak guztira	0,00	(51.325,42)	0,00	0,00
Guztira	(623.000,00)	(835.044,09)	(550.000,00)	(608.110,08)

III.- Entitateak lortutako baliabide ekonomikoak.

a) Erakundeak lortutako diru-sarrerak:

Diru-sarrerak	2023		2022	
	Aurreikusia	Burutua	Aurreikusia	Burutua
Sektore publikoko diru-laguntzak		107.654,73		94.285,29
Kapitaleko diru-laguntzak	500.000,00	55.690,53	560.000,00	2.441,26
Ekarpen pribatuak		716.674,58		510.000,00
Bestelako diru-sarrerak	0,00	6.051,72	0,00	1.643,80
Guztira	500.000,00	886.071,56	560.000,00	608.370,35

b) Erakundeak lortutako bestelako baliabide ekonomikoak:

Bestelako baliabideak	2023		2022	
	Aurreikusia	Burutua	Aurreikusia	Burutua
Egindako zorrak	0,00	267,99	0,00	301,73
Guztira	0,00	267,99	0,00	301,73

IV.- Beste erakunde batzuekiko lankidetzak-hitzarmenak.

2023 ekitaldian indarrean egon diren hitzarmen ekonomikoak ondorengoak dira:

Erakundea	Hitzarmenaren xedea	Diru - sarrerak 2023	Gastuak 2023
Asociación Civil Cuestión y Alternativas (Uruguay)	"Eskola Politikoak" garatzeko azterketa- eta lankidetzak-dokumentuak egitea.	0,00	15.924,57

V.- Jarduera-planaren eta egindako datuen arteko desbideratzeak

Ez da desbideraketa nabarmenik gertatu jarduera-planean aurreikusitako jarduerari dagokienez.

12.2. Ondare-elementuak norberaren xedeetarako erabiltzea.

a) Ondasun eta eskubide guztiak zuzenean lotuta daude Fundazioaren helburuak betetzearekin.

b) Errenten eta diru-sarreraren erabilera:

1. Errenten eta diru-sarreraren erabilaren betetze-maila: Fundazioak 2023ko ekitaldian lortutako diru-sarrera garbiak ondorengo taulan ageri dira:

2013ko apirilaren 10eko ebazpenean jasotako formatua (irabazi-asmorik gabeko erakundeen Kontabilitate Plan Orokorra)

Ekitaldia	Ekitaldiko soberakina	Doikuntza positiboak / (negatiboak)	Kalkulu-oinarria	Bideratutako errenta		Fundazioaren helburuetara aplikatutako baliabideak	Xede fundazionalari aplikatutako baliabideak					Aplikatu gabeko zenbatekoa
				Zenbatekoa	%		2019	2020	2021	2022	2023	
2019	-83.525,59	512.070,60	428.545,01	299.981,51	70%	454.380,25	454.380,25					0,00
2020	37.662,30	518.094,06	555.756,36	389.029,45	70%	439.938,03	439.938,03					0,00
2021	8.503,30	585.475,05	593.978,35	415.784,84	70%	523.872,24		523.872,24				0,00
2022	260,27	604.434,56	604.694,83	423.286,38	70%	543.208,70			543.208,70			0,00
2023	51.027,47	783.718,67	834.746,14	584.322,29	70%	738.605,63					738.605,63	0,00

Uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuan jasotako formatua (Babesletzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Araudia)

Ekitaldia	Emaitzen kontuko diru-sarrerak (A)	(-) Oinarrian sartu gabeko diru-sarrerak (B)	(-) Diru-sarrerak lortzeko beharrezko	= KALKULU-OINARRIA (E)	Bideratu beharreko gutxieneko errenta	%	Fundazioaren helburuetara aplikatutako baliabideak	Xede fundazionalari aplikatutako baliabideak				
								2020	2021	2022	2023	Aplikatu gabeko zenbatekoa
2020	555.756,36	0,00	0,00	555.756,36	389.029,45	70%	439.938,03	439.938,03				0,00
2021	593.978,35	0,00	0,00	593.978,35	415.784,85	70%	523.872,24		523.872,24			0,00
2022	604.694,83	0,00	0,00	604.694,83	423.286,38	70%	543.208,70			543.208,70		0,00
2023	834.746,14	0,00	0,00	834.746,14	584.322,30	70%	738.605,63				738.605,63	0,00

2. Ekitaldian aplikatutako baliabideak:

Gastuak / Inbertsioak	Zenbatekoa	Zenbatekoa
	2023	2022
Xedea betetzera bideratutako gastuak (amortizazioak eta kudeaketa gastuak gabe)	687.280,21	543.208,70
Xedea betetzeko egindako inbertsioak	51.325,42	0,00
Guztira	738.605,63	543.208,70

12.3. Kudeaketa gastuak.

Kontu zkia.	Ekitaldiko emaitza-epigrafea	Gastu mota	Gastua egozteko irizpidea (%)	2023	2022
64	Pertsonal-gastuak	Soldatak	3,95%	19.760,62	14.430,77
62	Jarduerako bestelako gastuak	Profesional independenteen zerbitzuak	80,00%	72.132,74	46.822,34
Guztira				91.893,36	61.253,11

Horrez gain, ondorengo taularen bidez jakinarazten da da gastu horien zenbatekoaren muga bete dela:

Ekitaldia	Muga		Ondare-administrazioak zuzenean eragindako gastuak	Patronatuko kideek eragindako gastuak	Ekitaldian sortutako kudeaketa gastuak guztira	Gehienezko muga Gainditua (+), Ez gainditua (-)
	Bereko Funtzen %5	Kalkulu-oinarriaren %20				
2022	4.791,62	120.938,97	61.253,11	0,00	61.253,11	(59.685,85)
2023	7.342,99	166.949,23	91.893,36	0,00	91.893,36	(75.055,87)

Ez du gainditzen

13. OHARRA.- LOTUTAKO ALDEEKIN TRANSAKZIOAK

Fundazioak alderdi loturadun gisa hartzen ditu Patronatuko kideak eta SORTU bazkide fundatzailea.

Fundazioaren Patronatuko kide izateak ez du inolako ordainsaririk sortzen eta, beraz, ez da gasturik erregistratu kontzeptu horretan.

Lehendakariaren kasuan, 2023ko ekitaldian onetsi da bere zerbitzuak Fundazioaren langile gisa kontratatzea, eta 30.792,23 euroko ordainsaria egin da. Emango dituen zerbitzuak hurrengoak dira:

- Hausnarketa estrategikoaren koordinatzailea.
- Espainiako Estatuko harremanen arduraduna.
- Fundazioak Nafarroan duen arduraduna

Ez dago betebeharririk pentsioen arloan edo bizi-aseguruen primen ordainketari dagokionez, ezta kargua uzteagatik kalte-ordainik eta ondare-tresnetan oinarritutako ordainketarik ere, ez Administrazio Organoko langileentzat ez Fundazioaren goi-zuzendaritzako langileentzat.

Bestalde, ez zaie aurrerakinik edo krediturik eman Gobernu Organoko kideei eta Fundazioko goi-zuzendaritzako langileei.

Ondorengo taulan, fundazioak lotutako aldeekin dituen saldo zordunak eta hartzekodunak laburbiltzen dira, baita 2023 eta 2022 ekitaldietan horiekin egindako transakzioak ere:

Erakundea	2023/12/31 saldoak		Kapital diru laguntzak 2023	Diru-sarrerak 2023	2022/12/31 saldoak		Diru-sarrerak 2022
	Zordunak	Hartzekodunak	Dohaintzak	Dohaintzak	Zordunak	Hartzekodunak	Dohaintzak
Sortu	0,00	0,00	51.325,42	716.674,58	0,00	0,00	510.000,00
Guztira	0,00	0,00	51.325,42	716.674,58	0,00	0,00	510.000,00

14. OHARRA.- BESTELAKO INFORMAZIOA

14.1. Pertsonala:

2023an eta 2022ean lanean aritu diren pertsonen batez besteko kopurua, kategorien arabera sailkatuta, ondorengo taulan zehazten da:

Kategoriak	Batez besteko pertsona kop.	
	2023	2022
Lehen mailako ofiziala	9,55	7,33
Garbitzailea	0,13	0,00
Lizentziaduna	0,90	0,90
Guztira	10,58	8,23

2023 eta 2022 ekitaldien amaierako erakundeko langile kopurua, sexuaren eta kategorien arabera sailkatuta, ondorengo da:

Kategoriak	2023			2022		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Lehen mailako ofiziala	11,00	6,00	5,00	8,00	4,00	4,00
Garbitzailea	0,25		0,25	0,00		
Lizentziaduna	0,90	0,90		0,90	0,90	0,00
Guztira	12,15	6,90	5,25	8,90	4,90	4,00

14.2. 2023ko ekitaldian eta urteko kontu hauek formulatu arte, aldaketa hauek izan dira Fundazioaren Patronatuko kideen artean:

- Lehendakaria: Florencio Aioz Monreal Julian Angel Zabalo Bilbaoaren ordezkari.
- Idazkaria: Eneritz Arrillaga Garin Sonia Jacinto Garciaeren ordezkari.
- Kidea: Edurne Benito del Valle Iñaki Egaña Sevillaren ordezkari.

Urteko Kontu hauen formulazio-datan ondorengoak dira Patronatuko Kideak:

Florencio Aioz Monreal	Lehendakaria
Eneritz Arrillaga Garin	Idazkaria
Jone Etxeberria Agirre	Kidea
Edurne Benito del Valle	Kidea
Jon Azkune Torres	Kidea

15. OHARRA.- INBENTARIOA

Ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 9/2016 Legearen 25.2 artikuluan aurreikusitako inbentarioa zehazten da. Bertan ageri diren elementu guztiak entitatearen xedeei lotuta daude.

Elementu mota	Elementuaren deskripzioa	Erosketa-data	Erosketa-balioa	Balorazio-aldaketak	Balio narriadura galerak, amortizazioak eta beste batzuk	Beste inguruabar batzuk	Balio garbia
Ekipo informatikoak	IZT EKIPU INFORMATIKOA	2014/07/22	4.982,13	0,00	4.982,13	0,00	0,00
Ekipo informatikoak	IZT fra.20170542	2017/05/25	1.887,60	0,00	1.887,60	0,00	0,00
Lurrak eta eraikuntzak	TXINGAR	2018/06/25	387.000,00	0,00	13.249,65	0,00	373.750,35
Altzariak	GRUP VIADA MATARO	2020/01/27	1.946,16	0,00	1.146,95	0,00	799,21
Ekipo informatikoak	IZT fra.20210160	2021/02/13	719,95	0,00	518,76	0,00	201,19
Altzariak	Ftra. zkia. 29129 MONTTE	02/10/2023	8.416,18	0,00	944,22	0,00	7.471,96
Beste instalazio batzuk	Ftra. zkia. 230224 CTESTUDIO	23/11/2023	42.909,24	0,00	687,72	0,00	42.221,52
Guztira			447.861,26	0,00	23.417,03	0,00	424.444,23

Florencio Aioz Monreal
Patronatuko lehendakaria